

# Música accesible para todos gracias al Conservatorio Superior

Bajo el título 'Al Tono de Tutti/Tutti Tonura' nace el proyecto impulsado por el departamento de pedagogía del Conservatorio Superior de Música de Navarra (CSMN). Esta iniciativa promete resonar en los corazones de aquellos que han estado silenciados frente a la música. Con entusiasmo y dedicación, los alumnos de prácticas de la especialidad de pedagogía han creado este proyecto que busca abordar esta necesidad.

Este miércoles 13 de diciembre será la primera fecha del proyecto, los estudiantes de Prácticas I comenzarán su andadura con las dos primeras actuaciones. La primera de ellas en el Colegio Público de Educación Especial Andrés Muñoz a las 9:30 de la mañana y posteriormente a las 11:00 en el Centro de Atención Integral a la Discapacidad San José. Estos dos centros se han enfrentado a la limitación en el acceso a la música en directo, se convertirán en el escenario de un evento que va más allá de la mera interpretación musical.

En palabras de Iñaki Hurtado impulsor del proyecto: "la falta de acceso a la música es una realidad que afecta a numerosas personas y numerosos centros en nuestra comunidad. Son personas que, por diversas razones, tienen un contacto muy limitado con el vasto y enriquecedor mundo de la música". Este proyecto nace con el objetivo claro de romper estas barreras y llevar la música a donde más se necesita. No sólo busca proporcionar melodías, sino también crear experiencias musicales, emocionales, sensitivas y artísticas que perduren en el tiempo. La invitación a participar en este proyecto se extiende a todo el que quiera formar parte de él: profesorado, alumnado, y aquellos apasionados por la música. Se busca la participación activa, ya sea con agrupaciones musicales o individualmente, para enriquecer esta experiencia.

En palabras de Hurtado "este proyecto es más que notas en un pentagrama; es un testimonio del poder unificador de la música. Creemos que la música tiene la capacidad de sanar, inspirar y unir a las comunidades. En este empeño, confiamos en que 'Al Tono de Tutti/Tutti Tonura' no solo llevará música a quienes la necesitan, sino que también construirá puentes de conexión y comprensión entre las personas".

**Pie de foto:** Alumnado impulsor del proyecto: 'Al Tono de Tutti/Tutti Tonura'

# Musika guztiontzat eskuragarri Goi Mailako Kontserbatorioari esker

‘Al Tono de Tutti/Tutti Tonura’ izenburupean sortu da Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko (CSMN) pedagogia departamentuak bultzatutako proiektua. Ekimen honek musikaren aurrean isilarazita egon direnen bihotzetan oihartzuna izatea agintzen du. Gogo biziz eta dedikazioarekin, pedagogia espezialitateko praktiketako ikasleek behar horri heldu nahi dion proiektu hau sortu dute.

Abenduaren 13an, asteazkena, izango da proiektuaren lehen data, I. Praktiketako ikasleek lehenengo bi emanaldiekin hasiko dute beren ibilbidea. Lehenengoa Andrés Muñoz Hezkuntza Bereziko Ikastetxe Publikoan goizeko 9:30etan eta ondoren 11:00etan San José Desgaitasunari Arreta Integrala Emateko Zentroan. Bi ikastetxe horiek zuzeneko musikarako sarbidearen mugari aurre egin behar izan diote, eta musika-interpretazio hutsetik haratago doan ekitaldi baten agertoki bihurtuko dira.

Iñaki Hurtadoren hitzetan, proiektuaren sustatzailea: "musikarako sarbiderik eza errealitate bat da, gure erkidegoko pertsona eta ikastetxe ugari eragiten diena. Hainbat arrazoiengatik, musikaren mundu zabal eta aberasgarriarekin harreman oso mugatua duten pertsonak dira ". Oztupo horiek apurtzeko eta musika gehien behar den tokira eramateko helburuarekin sortu zen proiektu hau. Melodiak emateaz gain, denboran iraungo duten esperientzia musikalak, emozionalak, sentsitiboak eta artistikoak sortu nahi ditu. Proiektuan parte hartzeko gonbidapena proiektuan parte hartu nahi duen orori egiten zaio: irakasleei, ikasleei eta musikazaleei. Parte-hartze aktiboa bilatzen da, musika-taldeekin edo banaka, esperientzia hori aberasteko.

Hurtadoren hitzetan, "proiektu hau pentagrama batean notak baino gehiago da; musikaren botere bateratzailearen testigantza da. Gure ustez, musikak komunitateak sendatu, inspiratu eta batzeko gaitasuna du. Ahalegin horretan, espero dugu ‘Tutti tonura’ musika eramango diela behar dutenei, eta pertsonen arteko lotura- eta ulermen-zubiak ere eraikiko dituela.

**Argazki oina:** Proiektua bultzatu duten ikasleak: ‘Al Tono de Tutti/Tutti Tonura’